

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 852/2023 Erabakia, abenduaren 19koa. Onespena ematea landa bideetarako laguntzen 2024ko deialdiari

2023ko udaberrian eta udan, ekaitz gogorrek bota ditu Arabako hainbat udalderri eta kontzejutan, batez ere Arabako Errioxako, Mendialdeko eta Arabako Haranetako eskualdeetan. Denbora laburrean, euri erauntsiek ur kantitate handia utzi zuten, eta horrek eragina izan zuen Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen erregistroko bideen egituran eta errodadura geruzan.

Gertaera klimatologiko horien ondoren, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariek kaltetutako bideak aztertu zituzten, zehazteko kalteen larritasuna, kasu batzuetan kuantifikazioa eta zer egoeratan geratu ziren, zer konponketa behar ziren erabakitzeke.

Erakunde titularrek kaltetutako bideak konpondu eta egokitu behar dituzte ahal bezain laster, kaltetutako nekazaritza ustiategietarako sarbideak lehengoratzeko eta nekazariak eta abeltzainek modu seguruan eta egokian erabili ahal izango dituztela bermatzeko. Horrek guztiak ezustean sortutako gastu handia eragin du, eta horri aurre egin behar diote.

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak Landa Bideen Erabilera, Arta-pen eta Zaintzarako 6/1995 Foru Arauaren 12. artikulua bidez xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiak toki erakundeentzako laguntza larriak ezarri behar ditu, bere erregistroan dauden bideak kontserbatu eta mantentzeko.

Aipatutako foru arauan ezarritakoa betetzeko eta landa bideak konpontzeko laguntzak eman ahal izateko, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 2ko 15/2023 Foru Dekretuak bideen erakunde titularrei laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Bestalde, euri erauntsiek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteen ondorioz bideetan egokitzapen eta hobekuntza jarduketak egiteko erabilgarri dagoen aurrekontu guztia erabiltzen ez bada, edo aurrekontu esleipena handitzen bada, sailaren administrazio baliabideak behar bezala erabiltzeko, komeni da deialdia aldi berean egitea 2024ko ekitaldirako diruz lagun daitezkeen hainbat inbertsio motatarako.

Horregatik guztiagatik, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak uste du guztiz justifikatuta dagoela bideak premiaz konpontzea eta lehengoratzeko, kaltetutako eremuetako nekazariak eta abeltzainak erabilera segurua eta egokia izan dezaten, eta beharrezkotzat jotzen du landa bideetarako laguntza deialdi bat ezartzea, prozedura aurreratuaren bidezkoa, landa bideetarako laguntzak arautzen dituzten oinarrien babesean.

Kreditu erreserba 2024ko ekitaldian laguntza deialdi horri erantzuteko behar bezala hornituko diren partiden kargura egingo da, eta, beraz, haren izapidetze aurreratua egin behar da.

Horrenbestez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea landa bideak egokitu, kontserbatu, konpondu eta hobetzeko laguntzen 2024ko deialdia, izapidetze aurreratuaren bidezkoa, honako xehetasun honekin:

– Laguntzen deialdiko inbertsioak:

• Bide moten arabera: Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inskribatuta dauden eta Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, artapen eta zaintzari buruzko otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan xedatutakoa bete behar duten bideentzat.

– Inbertsio motaren arabera:

– Bideak egokitzeko eta hobetzeko jarduketak, euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteen ondorioz (4.4. artikulua).

Kaltetutako zonak edo entitateak:

Dulantzi, Añana, Bernedo, Lagran, Lantaron, Gaubea eta Eskuernagako udalerriei dagozkien entitateak; Mañueta, Leza, Navaridas, Samaniego, Bilar, Guardia, Bastida eta lekorako udalak; eta Anda, Antezana, Antoñana, Aprikano, Azazeta, Basquiñuelas, Caicedo Sopeña, Etura, Gereñu, Hermua, Lacervilla, Luna, Manzanos, Marinda, Mijancas, Orbiso, Oteo, Gatzaga Buradon, Santikurutze Kanpezu, Tobera eta Villambrosako administrazio batzarrak.

– Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea (4.2. artikulua).

– Lehen adierazitako inbertsioei lotutako jarduketa orokorren kostuak (4.5. artikulua).

4.4. artikuluko inbertsioek lehentasuna izango dute 4.2. artikulukoekiko, eta deialdian erabilgarri dagoen edozein partidaren aurrekontu kredituaz baliatu ahal izango dira.

– Eskaerak egiteko epea: 20 egun baliadun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Eskaerak aurkeztea:

Laguntza eskaerak, 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, telematikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko berariazko izapidearen bitartez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-caminos-rurales>), eredu normalizatu bat aurkeztuta.

Egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikokoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.

Erregistro elektronikoa bakar batean aurkeztu daitekeen gehieneko luzera gainditzen duen dokumentazio osagarria aurkeztu behar bada, beste aurkezpen bat egin ahal izango da. Aurkezpen horretan, gutxienez, zer erregistro zenbaki edo kode individualizaturen osagarria den aipatu behar da, edo hura identifikatzeko informazio nahikoa.

Erakunde eskatzaileek laguntza eskaera bakarra aurkeztuko dute, eta, bertan, egin beharreko jarduketa guztiak jasoko dituzte, bai eta lan horiek zein bidetan gauzatu nahi dituzten ere.

– Aurkeztu beharreko dokumentazioa: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoa (9.4. artikulua).

– Puntuazioa eta lehentasun irizpidea: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoak (6.1.2. artikulua).

- Euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako jarduketa berezietarako laguntza ehunekoa: ehuneko 80.
- Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea: ehuneko 65.
- 4.5. artikuluan aipatzen diren jarduera orokorren kostuak: kostu zenbatetsiaren ehuneko 100.
- Erakunde bakoitzak gehienez eska ditzakeen bideak (inbertsioak): ez dago mugarik.
- Zenbat diruz lagundu daitekeen gehienez ere, erakundeko: ez dago mugarik.
- Inbertsioa diruz lagundu ahal izateko gutxieneko zenbatekoa, erakundeko: 4.000,00 euro.
- Kreditu erreserba: 2024ko ekitaldirako behar bezala zuzkituko diren partiden kontura egingo da, zenbateko hauekin:

Nekazaritzako azpiegiturak hobetzeko 2024rako partida:

Zenbatekoa (2024): 250.000,00 euro.

Etorkizuneko ekitaldietarako zuzkidura (2025): 335.000,00 euro.

Fenomeno natural kaltegarrien ondorioz nekazaritza azpiegiturak hobetzeko partida:

Zenbatekoa: 300.000,00 euro.

Kreditu horiek eskuratzeko lehentasuna izango dute fenomeno natural kaltegarrien ondorioz nekazaritza azpiegiturak hobetzeko eskatutako laguntzek, eta laguntza horiek ebatzi aurreko bi aurrekontu partidetan erabilgarri dagoen kreditu osoa erabili ahal izango da.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Bigarren. Dirulaguntzak emateko baldintza etengarria izango da kreditu egoki eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2024rako eta 2025erako aurrekontu antolamenduan.

Hirugarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako erabaki hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaileen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurtsio guztiak ebazteko.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioko organo berari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA